

Hizkuntzen kaleko erabileraren neurketa

ZALDIBIA



2022ko martxoa



ZALDIBIAKO
UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

AURKEZPENA

Hizkuntza politika egokiak garatzeko, ezinbestekoa da diagnostiko egokiak egitea: errealitatea zein den jakitea. Kaleko erabilera da hizkuntzaren egoerari buruzko adierazle esanguratsuenetako bat, eta, udalerrien diagnostiko egokia egiteko asmoz, azterketa ildo bat abiatu zuen UEMAk 2017an: kide dituen udalerrri guztietan kaleko erabilera aztertzea. Bigarren aldiz, 2021ean egin da neurketa.

UEMAko zenbait udalerririk urteak daramatzate gisa horretako neurketak egiten, baina gehienek ez dute halakorik egin oraintsu arte: 2017koa izan zuten lehena, eta 2021ekoa bigarrena. 2021eko neurketak, beraz, modua jarri du 2017ko behaketaren datuekin lehendabiziko alderaketa egiteko.

Neurketaren emaitza bi dokumentutan bildu da: batetik, Soziolinguistika Klusterrak egin du UEMAKo udalerrietako erabilera orokorraren analisi xehea, 2017ko eta 2021eko datuak alderatuz, neurtutako udalerrri guztietako emaitzak aintzat hartuta—93 udalerrri izan dira guztira—; bestetik, azterlan orokor horren osagarri, txosten honetan bildu dira zehazki udalerrriari dagozkion datuak.

METODOLOGIA

Urteak dira Euskal Herrian kaleko erabileraren neurketak egiten direla: 1989an egin zuten lehen aldiz Euskal Herriko neurketa, eta, harrezkero, beste zazpi aldiz egin da maila nazionaleko azterketa; horrekin batera, ehunka aldiz egin dira udalerrri mailako neurketak. Ikerketa eredu sendoa da, beraz. UEMAko herrietan behaketa egin ahal izateko, egokitzapen batzuk egin dira neurketa kopuruetan eta orduetan: 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, egun gehiagotan egin dira neurketak, baina denbora tarte laburragoz, ahalik eta modu eraginkorrean solasaldi kopuru handia jasotzeko; 3.000 biztanletik gorako herrietan, berriz, egun gutxiagoan egin da neurketa, baina ordu gehiagoan.

Hizkuntzen erabileraren kaleko neurketak, metodologiari dagokionez, ezaugarri nagusi hauek ditu:


- **Behaketa zuzena.** Neurketaren teknika behaketa zuzena da: herritarrei ezer galdetu gabe, zein hizkuntzatan ari diren jasotzen da. Ez da inkesta bat, beraz; jardunari erreparatzen zaio.
- **Neurtzaileak.** Behaketa, hortaz, neurtzaileen bidez egiten da: haiek jasotzen dute hiztunak zein hizkuntzatan ari diren. Herriz herriko boluntario sare zabala aritu da zeregin horretan, eta neurketarako berariazko formazioa jaso dute, behaketaren fidagarritasuna bermatzeko.
- **Elkarrizketa hizkuntza.** Kaleko solasaldiak neurtzen dira, ez hiztun bakoitzaren banakako jarduna: solasaldian entzuten den hizkuntza jasotzen da, nahiz eta ez entzun kide guztiguztiak. Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen badute, nagusia jasotzen da; elkarrizketa elebiduna bada —hizlari batzuek hizkuntza bat eta besteek beste bat—, biak jasotzen dira.
- **Datu bilketa.** Entzundako solasaldiak jasotzen ditu neurtzaileak, horretarako prestatutako fitxa baten bidez. Lau aldagai hartzen dira aintzat: elkarrizketako hizkuntza, adina, sexua eta haurrak hizketan ari ote diren. Betiere, behatzailearen senaren arabera esleitu dira ezaugarri horiek, ezer galdetu gabe. Adinari dagokionez, bost talde egin dira: haurrak (2-14), gazteak (15-24), heldu gazteak (25-39), heldu nagusiak (40-64) eta adinekoak (65-...).
- **Aplikazioa.** Sakelako telefonoa erabiliz egin da datu bilketa gehiena, berariaz sortutako aplikazio baten bidez. Hala eskatu duten neurtzaileei modua eman zaie paperean aritzeko.
- **COVID-19aren eragina.** Osasun larrialdiak eragina izan du neurketan. Batetik, *online* egin da neurtzaileen prestakuntza, eta neurketa gehienak telefono bidez, eskutik eskura materialik ibili gabe. Bestetik, neurketa egitean izan dira zailtasun handiagoak, batik bat maskaragatik, nekezagoa izan baita solasaldiak entzutea. Lagina ondo osatu da, hala ere.

LAGINA

UEMAk eta Soziolinguistika Klusterrak prestatutako ereduari jarraikiz, 16 orduz neurtu da kaleko erabilera Zaldibian: asteko zazpi egunetan egin da neurketa, hamasei egunez, bakoitzean ordubete. Maiatzaren 3an hasita, bi astez egin dute neurketa, egunero, eta hurrengo asteko asteburuan ere bai. Ez da ibilbide berezirik prestatu: herriko erdigunean, jendea ibili ohi den lekuan egin dira neurketak. Eraitzen adierazgarritasunari dagokionez, honako hauek dira zenbaki nagusiak:

- **Unibertsoa:** Zaldibiako kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.
- **Lagina:** 339 elkarrizketa eta 1.113 solaskide.
- **Akats tartea:** $\pm 4,79$ ekoa, elkarrizketen lagin osoarentzat, %95eko konfiantza mailarekin.

Laginaren osakerari dagokionez, nahikoa parekatuak dira udalerriko biztanleriaren argazkia eta laginarena. Laginari dagokionez, heldu nagusiek osatzen dute multzorik handiena (%33,2), eta segidan daude heldu adinekoak (%22,8). Gazteen kasuan, lagina txikiagoa da biztanleria erreala baino; ia erdia. Gainontzeko adin-tarteetan, ordea, antzekoak dira ehunekoak.



Iturria: Eustat, Soziolinguistika Klusterra, UEMA



ERABILERAREN EMAITZAK

Neurketak emandako emaitza nagusiak jaso dira atal honetan: bai erabilera orokorra, bai hiztunen ezaugarrien arabera. Alderaketak egin dira Zaldibian 2017an egindako neurketarekin.

ERABILERA OROKORRA


2021eko neurketan, hiztunen %85,3 sumatu dira kalean euskaraz. Gainerako hizkuntzen erabilera askoz apalagoa da: gaztelaniaren erabilera %9,4 da herriko kaleetan, eta beste hizkuntzena, %5,3.

2017ko neurketarekin alderatuta, beherakada arin bat izan du euskararen erabilera. Dena den, nabarmentzekoa da beherakada hori ez dela izan gaztelaniaren mesedetan. Izan ere, euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzen erabilera egin du gora: %1,5etik %5,3ra. Herriko biztanleriaren ezaugarrien aldaketaren adierazlea da hori. Aldi berean, gaztelaniaren erabilera 0,3 puntu jaitsi da.



SEXUAREN ARABERAKO ERABILERA

Erabilera apenas dagoen alderik sexuari dagokionez. Euskararen erabilera datuei dagokionez, gizonek 2,8 puntu gehiago egiten dute euskaraz; gaztelaniari eta beste hizkuntzei erreparatu gero, emakumeen artean erabili dira gehiago. Dena den, esan bezala, desberdintasun horiek ez dira adierazgarriak.




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, UEMA

ADINAREN ARABERAKO ERABILERA

Euskara da hizkuntza nagusia adin talde guztietan, bostetik lauk baino gehiagok erabiltzen dute, baina badira ñabardurak adin talde batetik bestera. Interesgarria da datuok adin taldeen arabera aztertzea, joera aldaketa bat ikusten delako herrian; eta, aurrez esan bezala, bizilagun berrien eragina antzematen delako.

2021eko neurketaren arabera, gazteek erabiltzen dute euskara gehien (%100), eta atzetik daude haurrak (%85,6) eta heldu nagusiak (%97,2). Euskara gutxien erabiltzen duen adin taldea nagusia da (%81,5).


Beste hizkuntzen datua da adierazgarriena. Haurren artean %12,6 elkarrizketa entzun dira beste hizkuntzetan; eta %9,1 heldu gazteen artean. Horrek erakusten du familia gazteek herrian bertan egiten dutela bizimodua.



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, UEMA

Aurreko neurketarekin alderatuta, badira gorabeherak —2017an helduen multzoa ez zen bitan berezi; eta, beraz, datu bera dute biek 2017an—. Umeen bilakaerari dagokionez, hamar puntuko

jaitsiera egon da. Dena den, eta aurrez aipatu den bezala, horren atzean dago beste hizkuntzen erabileraren gorakada: 10,8 puntu egin dute gora. Bestalde, gaztelaniaren erabilera jaitسي egin da adin tarte horretan: 0,7 puntu. Modu apalagoan bada ere, halako bilakaera izan du heldu gazteen taldeak. Euskararen erabilera apur bat jaitسي da, 1,4 puntu. Beste hizkuntzen kopurua 7,2 puntu igo da, eta gaztelaniazkoena 5,8 puntu jaitسي da. Gainontzeko adin taldeei dagokienez, antzeakoak dira kopuruak, 2017koekin alderatuz gero.




ERABILERAREN ANALISIA

Zaldibiako kaleetan egindako neurketaren emaitzak egoki interpretatzeko asmoz, testuingurua aztertu da: batetik, udalerrriaren errealitate soziolinguistikoa; bestetik, antzeko udalerrietako datuak.

UDALERRIKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA


Euskararen ezagutzari buruzko azken datuak 2016koak dira; horien arabera, herritarren %80,8k dakite euskaraz. Horretan oinarrituta kalkulatu da *espero daitekeen erabilera*: Txillardegiren eredu matematikoa du oinarri, eta kalkulatu du euskaldun proportzioa aintzat hartuta zein den espero daitekeen erabilera (*erabilera isotropikoa*). Udalerriko ezagutza datuak oinarritzat hartuta, eta Txillardegiren formula ezarrita, %58,4koa da Zaldibian esperotako kale erabilera. Kaleko erabilera (*erabilera isotropikoa*). Udalerriko ezagutza datuak oinarritzat hartuta, eta Txillardegiren formula ezarrita, %58,4koa da Zaldibian esperotako kale erabilera. Kaleko erabilera. Kaleko neurketan, esperotakoa baino askoz erabilera handiagoa behatu da; are, ezagutza datuen gaitetik ere badago.



Iturria: Eustat, Soziolinguistika Klusterra, UEMA

ANTZEKO UDALERRIETAKO ERABILERA

Udalerriko datuak testuinguruan jartze aldera, alderaketa egin da antzeko eta inguruko herri batzuekin.



Iturria: Eustat, Soziolinguistika Klusterra, UEMA

ONDORIOAK

Atal honetan jaso dira kaleko erabileraren neurketak emandako emaitza nagusiak eta ondorioak:

- **Erabilera orokorra.** Euskara da kaleko hizkuntza nagusia udalerrian (%85,3); eta, aurreko neurketarekin alderatuta, 3,5 jaitsi da erabilera. Gaztelaniari dagokionez, %9,4 mintzo dira hizkuntza horretan udalerriko kaleetan, eta gainerako hizkuntzen erabilera %5,3koa da.
- **Sexua.** Emakumeen eta gizonen erabilera antzekoa da. Hala ere, gizonek gehiago erabili dute euskara, 2,8 puntukoa da diferentzia.
- **Adina.** Euskararen erabilera gorabeherak izaten dira adinaren arabera. Udalerriko neurketan, gazteena da erabilerarik handiena (%100); eta haurrena, ondoren (%85,6). Txostenean zehar aipatu den bezala, euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzen bilakaerari erreparatu behar zaio. Haurren artean %12,6 elkarrizketa entzun dira beste hizkuntzetan; eta %9,1 heldu gazteen artean. Horrek erakusten du familia gazteek herrian bertan egiten dutela bizimodua. Alegia, biztanleria aldaketaren isla da kale neurketa. Horri jarraiki, haurren euskararen erabilerak behera egin du, 10 puntu. Gainontzeko adin taldeetan ez dago aldaketa nabarmenik.
- **Esperotako erabilera.** Udalerriko euskara ezagutza kontuan hartuta, kalkulatu da kalean %58,4 erabilera espero daitekeela; neurtutako erabilera, ordea, handiagoa da, 26,9 puntu handiagoa. Hala gertatzen da arnagune gehienetan. Horrek erakusten du euskaldunek hein handian erabiltzen dutela euskara, nahiz eta erabilera datuek baduten hobetzeko tartea. Datu horren beste irakurketa bat izan daiteke euskaldunak euskaldunekin dutela harremana, eta plazan lekua dutela euskal hiztunek.

Dokumentu honetan jaso dira udalerriri dagozkion datuak. Eskuragarri dago udalerrri guztietako datuetan oinarritutako analisi sakonagoa ere. Helbide honetan dago eskura: labur.eus/KN-UEMA.